



**2018KO URTARRILAREN 12KO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hemezortziko urtarrilaren hamabian, arratsaldeko ordu bi eta erdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratu-tako zinegotziak honako hauek dira: Ane Irastortza Izagirre, Aitor Altuna Oiarbide, Joseba Imanol Aran Barandiaran eta Marian Zufiria Apeztegia.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutako onespenera aurkeztu da 2017ko abenduaren 15ean egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- ALKATETZAREN EBAZPEN BIDEZ ONARTUTAKOEN BERRI EMATEA.-

Jarraian, eguberri egunen inguruan tokiko gobernu batzordearen bilerarik ez dela egin eta, alkatezaren ebazpen bidez onartutako faktura eta diru laguntzen berri ematen da.

Tokiko Gobernu Batzarra jakinaren gainean gelditzen da.

III.- FAKTURAK.-


Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2017ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 135 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, LAUROGEITA HEMERETZI MILA ZAZPIEHUN ETA BERROGEITA BI EURO ETA HIRUROGEITA HIRU ZENTIMO (99.742,63 €)tako eta 2018ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 1 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, LAUROGEITA HAMAHIRU EURO ETA HIRUROGEI ZENTIMO (93,60 €)tako onartzea erabakitzen da.

IV.- GIPUZKOAKO EROSKETEN ZENTRALAREN BIDEZKO KONTRATAZIOA.-

Inprimagailuen hornikuntza eta mantentzea egiteko kontratazio espedienteari atxikimendua.-

Gipuzkoako Erosketen Foru Zentralak jakinarazi du, inprimagailuen hornikuntza eta mantentzea egitea kontratatzeko kontratazio espedienteari hasiera ematera doala, esparru akordioaren prozedura bidez.

Honen aurrean eta kontuan izanda udal honetako Osoko Bilkurak, 2011ko martxoaren 17an egindako bilkuran, Gipuzkoako Foru kontratazioen zentralari atxikitzeko hitzarmena onartu zuela.



Kontuan izanda baita ere udal honek hornikuntza hau behar duela.

Gaia aztertu ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botoekin, erabakitzen du:

- 1.- Gipuzkoako Foru Kontratazioen Zentralaren bidez inprimagailuen hornikuntza eta mantentzea egitea kontratazeko hasi duen esparru akordioaren kontratazio espedienteari atxikipena ematea, 2011ko martxoaren 17ko Udal Osoko Bilkurak onartuta atxikitako hitzarmenean ezarritako eran eta baldintzetan, eta 2011ko otsailaren 22ko 2011/3 Foru Dekretuan ezarritako arauetan.
- 2.- Aldundiak esparru akordioa formalizatu ondoren eta hark adierazitako epean, betiere enpresa esleipendunarekin kontratu eratorria izenpetzeko konpromisoa hartzea.

V.- BENEDITARREN FUNDAZIOARI EKARPENA .-

Alkateak esaten du Beneditarren Fundazioan udala patronoa dela eta Fundazioaren gastuei aurre egiteko hitzarmen bat izenpetuta dagoela eta udal aurrekontuan horretarako partida jasota dagoela. Eta gaineratzen du horren arabera, eta 2018 ekitaldiari dagokionean, udalak fundazioari hogeita bi mila euroko (22.000 €) diru-ekarpena egiteko proposamena egiten duela.

Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, Beneditarren fundazioari HOGETA BI MILA EUROko (22.000 €) diru-ekarpena egiteko proposamena onartu egiten du.

VI.- EUSKARAKO DIRU LAGUNTZAK .-

Euskara eta hezkuntzako zinegotziak egindako proposamenak aztertzen dira jarraian:

- Urruña - Ziburuko ikastolaren alde, San Benito Ikastolari diru laguntza.-

Urruña - Ziburuko ikastolen aldeko egindako ekitaldiak direla dela eta, 300 €ko diru laguntza onartzea.

- Goierriko Euskal Eskola, Mintzalaguna proiektua.-

Mintzalaguna proiekturako 2017ko diru laguntzaren bigarren zatia ematea. Bigarrenengo zati hau bost mila eta berrogeita hamar (5.050 €) euro dira.

- Goierriko Euskal Eskola, Gerriko Ikerlan Beka.-

Gerriko Ikerlan Bekarako 2017 urteko diru laguntzaren bigarren zatia, bi mila eta bostehun euro (2.500 €) ematea.

VII.- GALDERA ETA ERREGUAK .-

Aran zinegotziak (EH Bildu) elurtearen ondoriozko kalteez galdetzen du eta alkateak erantzun egiten dio.

VIII.- BILERAREN AMAIERA.-



LAZKAOKO
UDALA

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko hirurak hiru gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

